

MUSIKEAN

Musika Klasikoa
Ean 2023



MUSIKEAN

Musika Klasikoa
Ean 2023

MusikEAn 2023

Badira urteak Ean, Agustin Bergarari esker eta berarekin batera antolatu ditugula musika klasikoko ekitaldiak, Eamun Mendibelandaren margolanen diseinuarekin eta Eako Udalaren babesarekin.

Ekitaldi horiek egindako bidetik jaio zen MusikEAn.

2023ko irailaren bihotzean ospatuko dugu MusikEAn hirugarren aldiz.

Euskal Herriko musika eta kantu tradizioa eta munduko obra klasiko eta berritzaileak eskainiko dizkigute bertara hurbildutako goi mailako musikari eta kantariek.

Musikaren bitartez elkartu, gure musika eta kantuekin identifikatu eta Ean herri bizia bagarela sentitzeko aukera izango dugu, hori baita asmo nagusia.

Bertatik bertara antolatutako ekimena da hau eta herritarrok gure partehartze eta berotasunarekin egiten dugu posible.

Goza dezagun ba musikaren magiaz MusikEAn.





Irailak 15, barikua

Olatz Saitua. Sopranoa
Eugenio Tobalina. Gitarra



Irailak 16, zapatua

Eragiyok Abesbatza



Irailak 17, domeka

Xarma Duet



Irailak 22, barikua

Perkusbiska



Irailak 23, zapatua

Oreka Quartet



Irailak 24, domeka

Akelarre Abesbatza

Irailak 15, barikua

Olatz Saitua. Sopranoa **Eugenio Tobalina. Gitarra**



Olatz Saitua, sopranoa

Bilbon jaioa, bertako Musika kontserbatorioan ikasi zituen Gitarra eta Kantua.

Txikitatik abesbatzetan ibili ondoren, Unibertsitatean Enpresa ikasketak egin eta gero, ahots formakuntza atzerrian zabaldu zuen: Salzburgoko Mozarteumean Opera gradua egin zuen Wilma Lippekin eta Bussetoko Accademia Verdianan eta Sienako Accademia Chigianan Carlo Bergonzirekin. Ileana Cotrubasekin ere lanean ibili zen Bilbon eta Vienan.

Debuta Italian egin ondoren (Musetta/Viareggio eta Cosenza, Rosina/Siena, Bastienne/Firenze) Salzburgoko Landertheaterean aritu zen 3 denboralditan eta beste 9 Eseneko Aalto Theaterean. Bertan Gilda, Rosina, Oscar, Olympia, Adele, Gretel, Marzelline, Tytania, Musetta, Susanna, Blonde, Despina, Papagena, Mme Silberklang, Soeur Constance, Frasquita interpretatu zituen besteak beste. Madrilera Teatro Realen, Oviedoko Teatro Campoamorren, Donostiako Hama-bostaldian, La Coruñan, Valladoliden, Córdobaan, Tenerifan aritzeaz gain Bartzelonako Teatro del Liceun hainbat rol bete ditu: Susanna, Zerlina, Papagena, Barbarina, Amore/Gluck eta Monteverdi, Princesse, Tebaldo, Trujaman, Crobyle eta Yniold.

Hainbat zuzendari ospetsuren eskutan egin du lan eta errepertorio sinfoniko ugari jorratu du ganbera kontzertuak pianoarekin eta gitarrarekin egiteaz gain: Exsultate Jubilate, Carmina Burana, Requiem Brahms, Mozart, Fauré, Bachen 51. kantata.

Eugenio Tobalina, gitarra

Bilboko J.C. Arriaga musika kontserbatorioan ikasi zuen eta gerora David Russell eta Leo Brower maisuekin izandako kontaktak guztiz erabakiorrak izan dira bere formakuntza osotu eta horren osteko ibilbide profesionala bideratzeko.

Hainbat lanetan murgiltzen denetariko musikaria da. Musika garaikidea eta hain jorratuta ez dauden errepertorioak gustuko ditu, besteak beste errezitak bakarka eskainiz, ganbara taldeetan, ahotsarekin, gitarra eta orkestrarako kontzertuak, gitarra musika elektronikoarekin... Hainbat piezaren lehenengo entzunaldiak eskaini ditu, ahaztutako zeuden piezak gaur egunera ekarriz edo berari dedikatuak dauden pieza berriak aurkeztuz.

Lan diskografikoen artean *Urrundik* (SR, 2010) – Euskal Herriko konpositoreek gitarra eta ahotserako idatzitako kanten antologia – *Herrimina* (TMC, 2008) – gitarra hutserako euskal konpositoreek idatzitako XX.mendeko lehen erdiko lan ez osatua – *Leopoldo de Urcullu Guitar Music* (Naxos, 2008) - XIX. mendeko ezezaguna den konpositore honek gitarrarako idatzitako lanen monografikoa -, eta *Hizpide* (2002) - Synaulia Trioarekin bat euskal konpositoreek flauta, biola eta gitarrarako idatzitako lanekin -.

EGITARAUA

Gau eder bat	P. Sorozabal
Penak	P. Sorozabal
Pastorcito santo	J. Rodrigo
Coplillas de Belén	J. Rodrigo
Penas de amores	L. Palomo
Linda de mi corazón	L. Palomo
Romance sefardí	L. Palomo
Asturiana	M. de Falla
El paño moruno	M. de Falla
Nana	M. de Falla
Adio ene maitia ** Gitarra bakarrik	M. A. Arbea / Herrikoia
Atzo ttun ttun	A. Donostia (*)
O ciuciarella	A. Donostia
Le bon matin	A. Donostia
Iruten ari nuzu	A. Donostia (*)
Kantari euskalduna	J.M. Iparragirre/ Santesteban (*)
Zibilak esan naute	J.M. Iparragirre/Santesteban (*)
Zugana Manuela	J.M. Iparragirre/Santesteban (*)
Hara nun diran	J.M. Iparragirre /Santesteba
Amanecer ** Gitarra bakarrik	J. Guridi / José de Azpiazu
Lurraren pian	J. Guridi (*)
Hala baita	J. Guridi (*)
Mirentxu	J. Guridi (*)
Itxaso ** Gitarra bakarrik	M. A. Arbea / Herrikoia
Bihotz bat	P. Sorozabal
Ala Kinkirrin	P. Sorozabal
Urrundik	P. Sorozabal 3:16
Bihotz bat	P. Sorozabal 3:10
Ala Kinkirrin	P. Sorozabal 2:25

(*) Gitarraarako moldaketa Eugenio Tobalinak

Irailak 16, zapatua

Eragiyok Abesbatza



Eragiyok Abesbatza

Ahots grabeen abesbatza da, 2018. urtean sortua. Euskal abesbatzen musika tradizioa zabaltzeko eta indartzeko ahaleginean oinarritzen da bere jarduera, batez ere euskal musikagileek sortutako folklorea eta eliz-musika landuz. Aldi berean, beste-lako musikak errusiar folklorea eta erreperitorio lirikoa (opera eta zarzuela).

Bere sorreratik Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat jaialditan parte hartu du, hala nola Antxon Sierra Oroituz (Donostia, 2020), Musikaste (Erretereria, 2021), Ahots-Musika Topaketak (Basauri, 2022), Festival Cant'A Choeur (Akize, Frantzia, 2022), Rencontres Internationales de Voix d'Hommes (Châtel-Guyon, Frantzia, 2022), 39. Eliz-Musika Zikloa (Hondarribia, 2023) edota Encuentro de voces graves (Segovia, 2023). Irungo Luis Mariano Lirika Elkartearen eskutik hiru opera antzestu ditu: *Nabucco* (2019), *Rigoletto* (2022) eta *La fille du régiment* (2022).

1. saria lortu du bi lehiaketatan: Erretereriako 72. Gabon Abesti Sariketa Probintziala (2018) eta Bartzelonako 56. Festival Internacional de Cant Coral (2021).

EGITARAUA

Agur zaharra

Sabin Salaberri

Otoya

Máximo Moreno

Euskal-Erria

Juan Jose Gainza

Ara nun diran

Jose Maria Iparragirre

Maite

Pablo Sorozabal

DIE ZAUBERFLÖTE: O Isis und Osiris

Wolfgang Amadeus Mozart

RIGOLETTO: Zitti, zitti

Giuseppe Verdi

MARINA: Coro de marineros

Emilio Arrieta

Negra sombra

Xoán Montes

Kitolis

Luis Aramburu

Izar ederrak

Josu Elberdin

Aurtxo-aurtxoa

Sabin Salaberri

TXANTON PIPERRI: Eszena eta ereserkia

Buenaventura Zapirain

ZUZENDARIA: **Ander Simal Alberdi**

PIANO-JOTZAILEA: **Miren Gabirondo Olazabal**

Irailak 17, domeka

Xarma Duet



XARMA DUET, klarinetea eta akordeoia

Edurne Zabalo klarinetistak eta **Gorka Hermosa** akordeoilariak osatutako duoa da, eta euskal akordeoilariak bikotearentzat berariaz idatzitako konposizioak interpreta-tzen ditu. Gorka Hermosaren musikak hainbat sari jaso ditu, hala nola konposizioko CIA IMC-UNESCO.

Azken bi urteetan, 3 kontinentetako 20 orkestrak jo dute Gorka Hermosaren musika sinfonikoa, eta haren ganbera musika entzungai izan da hainbat auditoriotan, hala nola Berlingo Filarmonikoan, Washingtoneko National, Opera Kennedy Centerren eta Madrilgo Auditorio Nazionalean. Haren estiloan ezaugarri berezia da Iberiar penin-sulako herri musiken, jazzaren eta musika klasikoaren arteko oreka zaindua.

Edurne Zabalo klarinetista Gasteizko Kontserbatorioko irakaslea da, eta esperientzia zabala du ganbera musikan nahiz askotariko orkestra eta taldeekin; haren sentibe-ratasunak eta nortasunak izaera berezia ematen diote erreperitorioari.

EGITARAUUA

Mater Noster

Alabei

Fasio

Meditatio

Itsas Alboka

Aurreku

Peace Dream

Amore

Anantango

Brehme

Perkusbiska



Perkusbiska, perkusio bikotea

Vicent Zaragoza eta **Elur Arrieta** perkusio jotzaileek osatzen dute bikotea. "Perkusiozko mundu bat / Un mundo de percusión" ikuskizuna aurkeztera datoz, perkusiozko musika tresnen mundu zabal hori gehiago ezagutarazteko asmoz.

Ahotsa eta perkusioa soilik erabiltzen zeneko erreperertoriotik hasi eta XX. mendean perkusiorako idatzitako musikara egingo dute bidaia. Herri musikan erabili izan diren instrumentu eta tresna berezietz gain, gaur egungo, perkusio tresna estandarrek, hainbat eratako danbor, marinba etabar entzun eta ikusteko aukera izango dugu.

2004-08 urteetan, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian (Musikene) elkarrekin burutu zituzten perkusio ikasketekin batera hasi eta adiskidetasun hartatik sortu da perkusio bikotea

Gaur egun, **Vicent Zaragoza** Bilbao Orkestra Sinfonikoko (BOS) perkusio bakarlaria da eta **Elur Arrieta** freelance musikaria eta musikarientzako mindfulness-ean aditu eta instruktorea. Era berean, aipatutako lan horiek estatu mailako hainbat orkestra eta talderekin egiten dituzten kolaborazioekin uztartzen dituzte, esaterako: Euskadiko Orkestra (EO), Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa (OSCyL), Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (NOS), Bilboko Udal Musika Banda, Bartzelonako Udal Musika Banda, PAAX GNP jaialdi internazionala eta abar.

Beraien espezialitatea perkusio klasikoa izan arren, beste hainbat musika estilo ere jorrazten dituzte: musika tradizionala, musika garaikidea, musika modernoa, jazz, musika latino, eta abar. Musika talde ezberdinetako partaide izan dira azken hamazortzi urteetan.

EGITARAUA

Conversation for two tambourines	Bobby Lopez
Catching Shadows	Ivan Treviño
Losa	Emmanuel Sejourne
Trio per uno	Nebojša Jovan Živković
Fission	Alice Gomez

Irailak 23, zapatua

Oreka Quartet



Oreka Quartet

Iñaki Lagos, biolina

Pablo de Luna, biolina

Irati Castro, biola

Elena Escalza, biolontxelo

Oreka Quartet taldeak Euskal Herriko hainbat leku eta jaialditan eskaini ditu bere obrak. Musikariek Europako maila altuko kontsebatorioetan ikasi eta horrez gain ganbera musikan ibilbide luzea egin dute. Interpretazioa landu eta irakasleak ere badira Bilboko Juan Crisostomo Arriaga eta Gasteizko Jesus Guridi kontsebatorioetan eta Musikene goi-mailako kontsebatorioan. Laukoterako idatzi den erreperatorio klasikoa lantzen dute eta aparteko garrantzia ematen diote Euskal Herrian soka laukoterako idazten den musika zabaltzeari, gaur egun *Tarantela* dantza taldearekin parte hartzen dute *"Itsasoan laino dago"* proiektuan.

EGITARAUA

Jose María Usandizaga

Euskal kanta herrikoei buruzko laukotea

Tres lent-Vif-Tres lent
Scherzo
Moderé
Introducción, Zortziko et final

Jesus Guridi

2. Laukotea La menorrean

Allegro moderato
Adagio sostenuto
Prestissimo
Vivace non troppo

Irailak 24, domeka

Akelarre Abesbatza



Akelarre Abesbatza

28 ahots gazte osatutako ganbera-abesbatza da. Xabier M. Aretxabaletaren zuzendaritzapeko ibilbidean hasieratik, 2018ko abenduan.

Euskal Herriko 19 eta 33 urte bitarteko gazteen partaidetzarekin, guztiak ahots eta koru esperientzia handikoak. Gazteen artean musika korala sustatzeko helburuarekin sortu zen. Horregatik, artista gazteekin lankidetzan aritu izan da beti bere proiektuetan, bai interprete zein konposatzaileekin. Horrez gain, beti izan dute helburu musika korala formatu berrietan eskaintzea, ikusleentzat esperientzia erakargarriagoa izan dadin.

Akelarre abesbatzak erreperitorio zabala eskaintzen du: musika klasikotik hasi eta garaikideraino; euskal folklore zein atzerriko herrialdetako folklore lanak; a capella abestutako zein instrumentuz lagundutako obrak, baita zenbait konposatzaile gazteek Akelarrentzat espreski sortutako lanak ere.

Ibilbidea denboran laburra izan arren, kontzertu ugari eskaini dituzte. Azpimarratu ditzakegun batzuk: *"Deiadarra"* kontzertua; *Ojos del Mundo* fundaziorako ongintza kontzertua; G. Fauré-ren *Requiem*a, Mikel Ansola organistarekin batera Gipuzkoako Organo Erromantikoaren Nazioarteko XXI. zikloan zein XVII. Diego de Amezua Organo Jaialdian interpretatu zutena; edota Miramongo *Matiné*etan interpretatutako Benjamin Britten-en *A Ceremony of Carols* kontzertua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko arpista den Iván Bragadorekin batera.

EGITARAUA

Maitia nun zira	J. Uruñuela
O nata lux	T. Tallis
Beti Quorum Via	C. V. Stanford
Donostiaco damachoak	J. Bello-Portu
Haizeak emandako nahiak	J. Saenz
Lob des frülings	F. Mendelssohn
O lux beata Trinitas	A. Makor
Sleep	E. Whitacre
The sounding sea	E. Barnum
Unclouded day	S. Kirchner
Joan del Riu	M. Oltra
Aritz Adarrean-Katalin	J. Ezkurra

MUSIKEAN

Musika Klasikoa
Ean 2023

Eskolondon 19:00etan

Musika koordinatzailea:
Agustin Bergara



www.hea.eus



www.ea.eus